



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

2019ko martxoa

---

# HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETA

---

**Lezo, 2019**



## Aurkibidea

<b>1</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>2</b>	<b>METODOLOGIA</b> .....	<b>4</b>
<b>3</b>	<b>“LEZO2018” NEURKETAREN FITXA TEKNIKOA</b> .....	<b>7</b>
3.1	IBILBIDEAK .....	7
3.2	NEURRALDIAK.....	7
3.3	IBILBIDEAK .....	8
3.4	UNIBERTSOA, LAGINA ETA EMAITZEN ADIERAZGARRITASUNA .....	10
<b>4</b>	<b>POPULAZIOAREN EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKOAK; EUSKARA-GAITASUNA</b> .....	<b>10</b>
<b>5</b>	<b>IKERKETAREN LAGINA ETA POPULAZIOAREN OSAKETA</b> .....	<b>11</b>
5.1	LAGINAREN ETA POPULAZIOAREN OSAKETA SEXUAREN ARABERA.....	11
5.2	LAGINA ETA POPULAZIOA ADINAREN ARABERA.....	12
<b>6</b>	<b>HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA</b> .....	<b>13</b>
6.1	HIZKUNTZAREN ERABILERA. DATU OROKORRA .....	13
6.2	HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. LEZO 2000-2019 .....	14
<b>7</b>	<b>HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, IBILBIDEEN ARABERA</b> .....	<b>15</b>
<b>8</b>	<b>HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERA</b> .....	<b>17</b>
8.1	HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA SEXUAREN ARABERA .....	17
8.2	HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA .....	19
8.3	ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEKO HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA.....	21
<b>9</b>	<b>KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA</b> .....	<b>22</b>
9.1	HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. DATU OROKORRA.....	22
9.2	HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. BILAKAERA. LEZO 2000-2019 .....	23
<b>10</b>	<b>HAUR-NAGUSI TALDEETAKO KALE-ERABILERA, HAURRA HITZ EGITEN ALA EZ</b> .....	<b>24</b>
<b>11</b>	<b>LEZO, 2019. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)</b> .....	<b>25</b>

## 1 SARRERA

Herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsia digu erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuen eta fidagarriena.

Erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, ez baita jarduera arautua, ez eta patroiz jakinei obeditzen diena. Horrenbestez, metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz, sortu eta garatu dugu hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale erabilerearen neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitate hurbiltzeko eta beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen dugu herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzerako garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (eroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiak matrikulazio datuak...), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen plan bat egiterakoan eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakin behar izatera eramaten gaitu lehentasunak ezartzeko.

Ondorioz, kale neurketen emaitzak beharrezko bihurtzen dira lehentasun horiek ezartzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera datu eskura ditzakegu neurketaren bidez, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa hauek maiztasun batekin eginez gero (bi urtez behin, bost urtez behin...), bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzea ahalbidetuko liguke.

2019an egindako hizkuntza-erabilerearen kale-neurketa hau Lezon 2000 urteaz geroztik bi urtez behin egiten denari ematen dio segida. Eskuarrean dugun txosten honetan 2019ko neurketaren emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu, eta bilakaerak aztertzerakoan neurketa horiek guztiak hartuko dira kontuan.

## 2 METODOLOGIA

Lezon egin dugun Hizkuntza-erabileraren Neurketaren oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da, baina kasu honetan herriko berezitasunetara egokituta. Kale Neurketaren metodologia "Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa" (Altuna, O; Basurto, A. 2013) argitalpenean jaso da (<http://www.soziolinguistika.eus/Gida>).

### **Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia**

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik zazpi alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta 2016an. Orotara 515.000 hiztunetik gora behatu dira kalean hizketan azken neurketan (2016). Gaur-gaurkoz, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira datu horiek.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela da, datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

### **Landa-lana**

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusizat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtzea izanik.

### **Elkarrizketa-hizkuntza**

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, egia da bakarrizketa gisa ere jasotzen ditugula elkarrizketa mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketen kasua daukagu, non hiztun bakarra jasoz biltzen den elkarrizketa telefonoz beste aldera dagoena ez dugulako ikusten. Bestalde, egia da normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten dela. Beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen dugu, gehien erabiltzen duena alegia.

### **Aztergaiak eta datuen adierazgarritasuna**

Erabilera datuak hiztunen ezaugarriekin aztertuko dira, hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aztergai hauek euskararen erabilera duten eragina ezagutuko dugu: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Emaitzak aztertzerakoan laginaren tamaina izango dugu kontuan, laginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan, lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Esaterako, behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina (neurtutako pertsona-kopurua) izango dugu, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.

Erabilera datuak eta aztergaiak beheko fitxaren bidez jasotzen dira:

**HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA**  
 SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA  
 T: 943 592 556  
 kaleneurketa@soziolinguistika.eus

HERRIA: \_\_\_\_\_  
 IBILBIDEA: \_\_\_\_\_  
 EGUNA: \_\_\_\_\_ ORDUA: \_\_\_\_\_  
 NEURTZAILEAK: \_\_\_\_\_

OHARRAK: \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTZESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01										
02										
03										
04										
05										
06										
07										
08										
09										
10										
11										
12										
13										
14										
15										
16										
17										
18										
19										
20										

Emakumezkoa    Gizonezkoa

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTZESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
21										
22										
23										
24										
25										
26										
27										
28										
29										
30										
31										
32										
33										
34										
35										
36										
37										
38										
39										
40										
41										
42										

Emakumezkoa    Gizonezkoa

**“Lezoarren” erabilera baino Lezoko kaleetakoa**

Muga metodologikoak tarteko, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurrak honetan jasotakoa Lezoko biztanleen (lezoarren) erabilera denik. Horren ordez, zuzenagoa da esatea Lezoko kaleetan jaso dugun erabilera dela hemen aurkezten duguna. Izan ere, ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik.

## Oharrak

Eta atal honi amaiera emateko, ikus ondoren datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

**Zer neurtu behar da?**

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabileran**, leku txikiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak...), neurketa honetatik kanpo geratuko dira.

**Neurtzaileak**

Neurketa **bikotea** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina egozkiago da neurtzaileak binaka antzesa. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendeari entzun eta besteak zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatu da, eta oso inportantea da saiaketa inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda ditezke; isilduz, hizkuntza aldatuz, haserretuz,...

**Neurketa, ez inkesta**

Kalean goazela jendeak ez zaito galdetu behar normalean zein hizkuntzatzen hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatzen ari den mintzatzen. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendeak ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean. Kalean doazeneak ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

**IBILIBIDEA**

Bikote bakoitzak **ibilbide jakin bat** izango du (koordenoren atzealdean jaso da ibilbidearen mapa, kaleen izenak, neurketa egunak eta orduak). Ibilbidea herriko kalarik jendetsuenean osatuko dute, normalean erdiguneak (erdigunea zentzu zabalean ulertuta): erosketa-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. Ibilbideak hasi eta bukatu leku berean egin beharko du, bikoteak behar bezainbat aldi egin ahal izateko ibilbide hori, neuraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Bikote bakoitzak bere ibilbidean pasatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka esanlekuaren batean esenta neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatzeko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide guztian zehar egitea da.

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

**Datuak nola jaso**

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

1. **Hizkuntza:** "Euskara", "gaztelera", "frantsesa" eta "besteri" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "besteri" zutabearen adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
2. **Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrezkoa da.
3. **Generoa:** Mintzakeiden sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
4. **Azkenik, haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzuntzen dituen "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badaoz euskaraz hitz egiten (**01 elkarrizketa**):
  1. Euskaraz laukian "X" markatu.
  2. Haurren zutabearen emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.
  3. "Haurrak hitz egiten" zutabearen "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gazteleaz hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egiten gabe (**02 elkarrizketa**):
  1. Gazteleaz laukian "X" markatu.
  2. Haurren zutabearen emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabearen gizonezkoen laukian "1", eta helduen zutabearen emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.
  3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" seinatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gazteleaz ari dira (**03 elkarrizketa**):
  1. Gazteleaz laukian "X" markatu.
  2. Gazteen zutabearen emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.
  3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" markatu.

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

**Oharrak:**

- Azalpena merezi duen puntua da hau: lau lagun elkarrekin doazenean **normalean bat entzungo** dugu hizkuntza eta beste hirurak entzute izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horretan **guk fitxa-orrian lau lagun entzuten ditugula jarriko dugu**.
- Neurketak irauten duen denboran **ahalik eta elkarrizketa** gehien entzungo ditugu, eta ahalik eta fitxa-orri gehien beteko ditugu.
- **Neuraldia hastean** fitxa-orri berri bat hasiko dugu, eta fitxaren goialdean agertzen diren datuak beteko ditugu neuraldiari dagokion ibilbidea, eguna eta ordua adieraziz.
- Ibilbidean zehar pertsona bera –**neurraldi eta elkarrizketa berean**– ez dugu behin baino gehiagotan neurtuko. Alegia, pertsona bera jende berarekin eta hizkuntza berean entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. Aldiz, taldean partaideren bat aldatzen bada (norbait etorri edo norbait joan) edo taldeak hizkuntza aldatzen bada (mintzakeak aldatu ez arren), hori gertaera ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.
- **Elkarrizketa elebidunetan** (batek euskaraz hitz egiten eta besteak gazteleaz erantzuten dutenean, edo alderantziz) bi aldi jaso dugu elkarrizketa, baina euskaraz eta beste gazteleaz. Ondoren bi elkarrizketa lotuko ditugu gezi batez, ikus aurreko fitxa ereduaren 04 eta 05 elkarrizketak (Adibidea: bi agure hitz egiten ari dira, bata euskaraz ari da eta besteak gazteleaz erantzuten dio).
- **Neurtzaileekin** hitz egiten dutenei ez zaito neurtuko.
- **Dudazko kasuak ez jaso**, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dagoenean, jaso gabe utzi.
- **Inoiz ez dugu galdetarik egingo, ez galdetu ezer:** ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzatzen ari den mintzatzen... Ez da ezer galdetu behar, ez baikara inkesta bat egiten ari; gurea behaketa bidezko neurketa denez, entzundakoa jaso behar dugu.
- Fitxa-orriaren atzealdean **oharrak** idazteko tarrea dago, neurketan zehar gerta ditezkeen ezustekoak, neurtzaileen zalantzak edota bestelako informazio interesgarria jasotzeko.
- **Azken oharra:** Euskara gutxi entzutea gogona izan arren, **beti egia jarri**, ikerketa hau **euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua** da eta errealitatea egiazki nolakoa den jakitea interesatzen zaigu. Honetan, mesedez, zorrotzak izan.

### 3 “LEZO2018” NEURKETAREN FITXA TEKNIKOA

#### 3.1 IBILBIDEAK

Irizpide horiekin, 2019ko Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa egin da 2019ko urtarrilaren 23tik otsailaren 6a bitartean, ondoren zehazten den egutegiaren arabera:

#### 3.2 NEURRALDIAK


NEURRALDIAK			
<b>1 ibilbidea</b>	Urtarrilak 26	Larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00
	Urtarrilak 27	Igandea	11:00-13:00
	Otsailak 6	Asteazkena	18:00-20:00
<b>2 ibilbidea</b>	Urtarrilak 30	Asteazkena	18:00-20:00
	Otsailak 16	Larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00
	Otsailak 6	Igandea	11:00-13:00
<b>3 ibilbidea</b>	Urtarrilak 23	Asteazkena	18:00-20:00
	Urtarrilak 26	Larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00
	Urtarrilak 27	Igandea	11:00-13:00
<b>4 ibilbidea</b>	Urtarrilak 30	Asteazkena	18:00-20:00
	Otsailak 2	Larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00
	Otsailak 3	Igandea	11:00-13:00
<b>Guztira: 8 ordu ibilbideko</b>			
<b>Guztira: 32 ordu udalerriko neurketa orokorrean</b>			

### 3.3 IBILBIDEAK

Ikus ondoren ibilbidearen nondik norakoak errazteko erabilitako mapa:


#### 1. IBILBIDEA ERDIGUNEA

Gurutze Santuaren plaza, Kale Nagusia, Jaizkibel hiribidea, Zubitxo kalea, Piku kalea (joan-etorria), Gurutze Santuaren plaza, eta Donibane kalea (iturriraino).



#### 2. IBILBIDEA. LAZON / PILDAIN


Donibane kalea (iturrian hasita), Guillermo Lazon kalea, Goiko Plaza, Pildain kalea, Agustin Lizarazu kalea (behetik sartuta: Hispanoa, Olasape, etab.), eta Gaintza kalea.





**3. IBILBIDEA. URDABURU**

Jaizkibel hiribidea (Zubitxoko semaforoa), Karlos Saldise plazari buelta, Larrun kalea, Auñamendi kalea, Gorbea kalea, Urdaburu kalea, eta Aralar kalea



**4. IBILBIDEA. ZUBITXO / E.SALABERRIA:**

Zubitxo kalea -ibai-ondotik hasita-, saskia dagoen plazatik buelta, Zubitxo kalea -kontserbatorioa, TUT kafetegia, arkupeetatik-, Pisbe, E.Otxoa, Lopene, eta E.Salaberria



### 3.4 UNIBERTSOA, LAGINA ETA EMAITZEN ADIERAZGARRITASUNA


**UNIBERTSOA:** Lezoko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak

**LAGINA:** behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun 1.559 elkarrizketek eta horietan solaskide izan diren 3.919 herritarrek osatu dute lagina.

**AKATS-TARTEAREN KALKULUA** (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):  $\pm\%1,5$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat,  $\%95,0$ ko konfiantza mailan.

## 4 POPULAZIOAREN EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKOAK; EUSKARA-GAITASUNA

1 Grafikoa: EUSKARA-GAITASUNA. Lezo, 2016 (%)



Iturria. EUSTAT, 2016.

1. Taula: EUSKARA-GAITASUNA. Lezo, 2016 (%)


Euskara-gaitasuna	Kopurua	%
Euskaldunak	3.619	60,3
Ia-euskaldunak	1.064	17,7
Erdaldunak	1.319	22,0
	6.002	100,0

Iturria. EUSTAT, 2016.

## 5 IKERKETAREN LAGINA ETA POPULAZIOAREN OSAKETA

### 5.1 LAGINAREN ETA POPULAZIOAREN OSAKETA SEXUAREN ARABERA

#### 2. Grafikoa: LAGINA ETA POPULAZIOA SEXUAREN ARABERA. LEZO, 2019



Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra. EUSTAT, 2016.


#### 2. Taula: LAGINA ETA POPULAZIOA SEXUAREN ARABERA. LEZO, 2019

Sexua	Lagina		Populazioa	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Emakumezkoak	1.869	47,7	2.995	50,6
Gizonezkoak	2.050	52,3	2.926	49,4
GUZTIRA	3.919	100,0	5.921	100,0

Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019 Soziolinguistika Klusterra. EUSTAT, 2016.

## 5.2 LAGINA ETA POPULAZIOA ADINAREN ARABERA

### 3. Grafikoa: LAGINA ETA POPULAZIOA ADINAREN ARABERA. LEZO, 2019



Iturria: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. EUSTAT, 2016

### 3. Taula: LAGINA ETA POPULAZIOA ADINAREN ARABERA. LEZO, 2019


Adin-taldea	Lagina		Populazioa	
	Kopurua	%	Kopurua	%
2-14	1.049	26,8	793	13,4
15-24	379	9,7	562	9,5
25-64	1.938	49,5	3.632	61,3
>64	553	14,1	934	15,8
GUZTIRA	3.919	100,0	5.921	100,0

Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra. EUSTAT, 2016.

## 6 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA

### 6.1 HIZKUNTZAREN ERABILERA. DATU OROKORRA

#### 4. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. DATU OROKORRA. LEZO, 2019 (%)



Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019 Soziolinguistika Klusterra.


#### 4. Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. DATU OROKORRA. LEZO, 2019 (%)

Hizkuntza	Lagina	Erabilera
Euskaraz	1 278	32,6
Gaztelaniaz	2 612	66,6
Frantsesez	14	0,4
Beste hizkuntza batean	15	0,4
GUZTIRA	3 919	100,0

Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

## 6.2 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. LEZO 2000-2019

### 5. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. Lezo 2000-2019



Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2000-2019. Soziolinguistika Klusterra.


### 5.Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. Lezo 2000-2019 (%)

	2000	2002	2004	2008	2010	2012	2014	2016	2019
Euskaraz	33,0	38,0	36,3	37,8	37,9	41,8	35,8	36,5	32,6
Gaz/Fra	67,0	62,0	63,7	62,0	60,8	57,8	63,6	63,0	67,0
Gaztelaniaz								63,0	66,6
Frantsesez									0,4
Beste hizkuntza batean				0,2	1,2	0,4	0,6	0,5	0,4

Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2000 -2019. Soziolinguistika Klusterra.

## 7 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, IBILBIDEEN ARABERA

### 6. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, IBILBIDEEN ARABERA. Lezo 2019 (%). Datu orokorra




Iturria. Hizkuntzen erabilaren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

### 6.Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, IBILBIDEEN ARABERA. Lezo 2019 (%)

Ibilbidea	Lag.	Euskaraz		Gaztelaniaz		Frants.		Beste hizk. batean	
		Kop.	Erab. (%)	Kop.	Erab. (%)	Kop.	Erab. (%)	Kop.	Erab. (%)
1. Ibilbidea: Erdigunea	1.105	428	38,7	669	60,5	3	0,3	5	0,5
2. Ibilbidea. Lazon / Pildain	597	200	33,5	395	66,2	0	0,0	2	0,3
3. Ibilbidea. Urdaburu	1.258	349	27,7	896	71,2	11	0,9	2	0,2
4. Ibilbidea. Zubitxo / E. Salaberria	959	301	31,4	652	68,0	0	0,0	6	0,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.919</b>	<b>1278</b>	<b>32,6</b>	<b>2612</b>	<b>66,6</b>	<b>14</b>	<b>0,4</b>	<b>15</b>	<b>0,4</b>

Iturria. Hizkuntzen erabilaren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

**7. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. Lezo. Bilakaera 2000-2019 (%).**



*Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2000 -2019. Soziolinguistika Klusterra.*

**7.Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. Lezo 2000-2019 (%)**

	2000	2002	2004	2008	2010	2012	2014	2016	2019
1. Ibilbidea. Erdigunea	33,0	44,9	37,9	45,9	38,6	47,6	42,3	45,2	38,7
2. Ibilbidea. Lazon/Pildain	24,3	31,2	30,2	33,8	35,3	35,8	30,0	27,6	33,5
3. Ibilbidea. Urdaburu	47,1	29,5	33,6	37,2	31,9	44,3	32,7	28,2	27,7
4. Ibilbidea. Zubitxo/E.Salaberria	39,0	45,8	43,9	32,9	44,3	32,3	33,9	34,0	31,4

*Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2000 -2019. Soziolinguistika Klusterra.*



## 8 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERA

### 8.1 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA SEXUAREN ARABERA

8.Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA SEXUAREN ARABERA. Lezo, 2019




Iturria: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

8.Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA SEXUAREN ARABERA. Lezo, 2018 (%)

Hizkuntza	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Lagina	Erabilera (%)	Lagina	Erabilera (%)
Euskaraz	665	35,6	613	29,9
Gaztelaniaz	1.198	64,1	1.414	69,0
Frantsesez	2	0,1	12	0,6
Beste hizkuntza batean	4	0,2	11	0,5
GUZTIRA	1.869	100,0	2.050	100,0

Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

**9. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA SEXUAREN ARABERA. Bilakaera Lezo 2012-2019 (%)**



*Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2012 eta 2019. Soziolinguistika Klusterra.*

**9.Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA SEXUAREN ARABERA. Bilakaera Lezo 2012-2019**

Hizkuntza	2012	2014	2016	2019
Emakumezkoak	43,5	41,4	38,2	35,6
Gizonezkoak	40,2	30,2	34,8	29,9

*Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2012 eta 2019. Soziolinguistika Klusterra.*

## 8.2 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA

### 10. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. Lezo, 2019




Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

### 10.Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. Lezo, 2019

	2 - 14		15 - 24		25 - 64		> 64	
	Lag.	Erab. (%)	Lag.	Erab. (%)	Lag.	Erab. (%)	Lag.	Erab. (%)
<b>Euskaraz</b>	490	46,7	108	28,5	572	29,5	108	19,5
<b>Gaztelaniaz</b>	556	53,0	270	71,2	1352	69,8	434	78,5
<b>Frantsesez</b>	1	0,1	1	0,3	1	0,1	11	2,0
<b>Beste hizkuntza batean</b>	2	0,2	0	0,0	13	0,7	0	0,0

Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

11. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. Bilakaera Lezo, 2000-2019 (%)



Iturria. Hizkuntzen erabilera kale-neurketa, Lezo, 2000-2019. Soziolinguistika Klusterra.


11.Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. Bilakaera Lezo, 2000-2019 (%)

	2000	2002	2004	2008	2010	2012	2014	2016	2019
<b>Haurrak</b>	45,3	51,8	52,5	50,6	52,8	57,0	55,4	43,5	46,7
<b>Gazteak</b>	32,9	20,4	19,8	13,0	29,3	46,6	16,1	41,6	28,5
<b>Helduak</b>	27,0	31,8	29,8	34,4	30,5	39,9	32,0	35,9	29,5
<b>Adinekoak</b>	25,6	35,2	34,5	40,1	39,7	21,2	27,3	25,4	19,5

Iturria. Hizkuntzen erabilera kale-neurketa, Lezo 2000-2019. Soziolinguistika Klusterra.

### 8.3 ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEKO HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA

#### 12. Grafikoa: ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEKO KALE-ERABILERA. Lezo, 2019 (%)



Iturria. Hizkuntzen erabilerearen kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

#### 12. Taula: ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEKO KALE-ERABILERA. Lezo, 2019


	Haurrak		Gazteak		Helduak		Adinekoak	
	Lag.	Erab. (%)	Lag.	Erab. (%)	Lag.	Erab. (%)	Lag.	Erab. (%)
<b>Euskaraz</b>	160	34,1	62	21,4	247	20,4	59	18,7
<b>Gaztelaniaz</b>	309	65,9	228	78,6	952	78,6	246	77,8
<b>Frantsesez</b>	0	0,0	0	0,0	0	0,0	11	3,5
<b>Beste hizkuntza batean</b>	0	0,0	0	0,0	12	1,0	0	0,0
<b>GUZTIRA</b>	469	100,0	290	100,0	1.211	100,0	316	100,0

Iturria. Hizkuntzen erabilerearen kale-neurketa, Lezo 2018. Soziolinguistika Klusterra.

## 9 KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA

### 9.1 HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. DATU OROKORRA

13. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. Lezo, 2019 (%)



Iturria. Hizkuntzen erabilerearen kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.


13.Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. Lezo, 2019 (%)

	Hurrez osatutako taldeetan		Haurrik gabeko taldeetan		Haur eta beste adin-taldekoekin osatutako taldeetan	
	Lag.	Erab. (%)	Lag.	Erab. (%)	Lag.	Erab. (%)
<b>Euskaraz</b>	160	34,1	469	20,8	649	54,4
<b>Gaztelaniaz</b>	309	65,9	1766	78,2	537	45,1
<b>Frantsesez</b>	0	0,0	11	0,5	3	0,3
<b>Beste hizkuntza batean</b>	0	0,0	12	0,5	3	0,3
<b>GUZTIRA</b>	469	100,0	2258	100,0	1192	100,0

Iturria. Hizkuntzen erabilerearen kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

## 9.2 HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. BILAKAERA. LEZO 2000-2019

14. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. Bilakaera. Lezo, 2000-2019



Iturria. Hizkuntzen erabilerearen kale-neurketa, Lezo 2000 -2019. Soziolinguistika Klusterra.


14. Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. Lezo, 2000-2019

	2000	2002	2004	2008	2010	2012	2014	2016	2019
<b>Hurrez osatutako taldeetan</b>	35,1	60,3	57,1	23,6	55,1	52,2	47,4	22,3	34,1
<b>Haurrik gabeko taldeetan</b>	22,1	24,5	22,4	21,2	26,4	32,5	23,3	27,2	20,8
<b>Haur eta beste adin-taldekoekin osatutako taldeetan</b>	51,0	56,6	48,1	57,2	48,3	57,0	55,5	52,1	54,4

Iturria. Hizkuntzen erabilerearen kale-neurketa, Lezo 2000-2019. Soziolinguistika Klusterra.

## 10 HAUR-NAGUSI TALDEETAKO KALE-ERABILERA, HAURRA HITZ EGITEN ALA EZ

15. Grafikoa: HAUR-NAGUSI TALDEETAKO KALE-ERABILERA, HAURRA HITZ EGITEN ALA EZ. Lezo, 2019



Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.

15. Taula: HAUR-NAGUSI TALDEETAKO KALE-ERABILERA, HAURRA HITZ EGITEN ALA EZ. Lezo, 2019

	<i>Haur eta beste adin-taldekoekin osatutako taldeetan, haurra hizketan</i>		<i>Haur eta beste adin-taldekoekin osatutako taldeetan, heldua hizketan</i>	
	Lag.	Erab.	Lag.	Erab.
<b>Euskaraz</b>	281	54,1	368	54,7
<b>Gaztelaniaz</b>	235	45,3	302	44,9
<b>Frantsesez</b>	3	0,6	0	0,0
<b>Beste hizkuntza</b>	0	0,0	3	0,4
<b>GUZTIRA</b>	519	100,0	673	100,0

Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2019. Soziolinguistika Klusterra.



## 11 LEZO, 2019. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)

